

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU

2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Genero arrazoiengatiko diskriminazioa Zigor Kodean: 22.4 artikuluko inguruabar astungarriaren analisia

Egilea

Iruri Altzerreka Martinez

Gradua

Zuzenbidea

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

5. Genero berdintasuna,
10. Desberdintasunak murriztea,
16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

Laburpena

Lan honen bidez Zigor Kodeko 22.4 artikuluan araututako genero arrazoiengatiko inguruabar astungarriaren analisia egingo da. Hasteko, haren jatorriaren inguruko zehetasunak emango dira, hiru legetan zentratuz, eta nazioarteko araudian eta araudi nazionalen genero indarkeriaren inguruan ematen den kontzeptu desberdinetan fokoa jarritz. Jarraitzeko, aipatutako astungarriaren aplikazio eremua aztertuko da, batez ere zenbait puntutan indarra eginez: sexu eta generoaren eta horien astungarrien inguruko desberdintasuna, ahaidetasun astungarriarekin desberdintasuna eta bateragarritasuna, astungarriaren aplikazioa, non bis in idem-ari lotuta, eta azkenik, bere aplikagarritasuna bikote barruan edo horretatik kanpo, 1/2004 LO-ak genero indarkeriaz ematen duen kontzeptuari lotuta. Azkenik, aztertutako astungarriaren inguruan eman diren iritzi kritikoak bilduko dira, baita gaiaren inguruko iritzi propioa ere, eta lanaren laburpena egingo da.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

2030 Agendaren helburuei erreparatuz gero, lan hau genero berdintasunean zentratzen da, esan bezala, genero arrazoiengatiko diskriminazioari erantzuteko Zigor Kodeak duen tresna jakin bat (22.4 artikuluko astungarria) aztertzea baitu helburu. Horrez gain, desberdintasunak murrizteari ere erreferentzia egin behar zaio, kasu honetan emakume eta gizonen arteko.

Eta azkenik, horri lotuta, bakea eta justizia aipatu behar dira, gizarte justu bat eraikitzea justizia kontua baita.